

AVIS DU CDPB

IEHGK-ren
TXOSTENA

Ekonomia

2022ko uztaila

Berrikuntza sozialaren laguntzea, lurraldearen trantsizioaren zerbitzura

SINTESIA

IEHGK-K 2018-2021 ARTEAN AKITANIAKO BERRIKO ADEME ERAKUNDEAREN
LAGUNTZAREKIN EGIN ESPERIENTZIAREN IRAKASPENAK

ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEEK ONARTUA



CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA



2016an, Akitania Berriko Ingurumen eta Energia Kontrolaren Agentziak (ADEME) Euskal Herriko Garapen Kontseiluarekin¹ lan egin nahi izan du, trantsizio ekologiko eta energetikoan gizarte zibila nola inplika daitekeen ebaluatzeko. Garapen Kontseiluak Euskal Herrian bildu eragileen artean egin ikerketa soziologiko baten ondotik, Akitania Berriko Ingurumen eta Energia Kontrolaren Agentziak proposatu dio misio experimental bat eramatea, estatu mailan aitzindari izanzen zena. Misio horren xedea trantsizio ekologiko eta energetikoan berrikuntza sozialak duen lekua ikertzea zen. 2018-2020 aldirako hitzarmen batean gauzatu da².

Garapen Kontseiluari eman misioaren helburu orokorra da ADEMEk "ekonomia berri" horri buruz dituen hipotesiak errealitatean egiaztatzea, eta trantsizio ekologiko eta energetikoan eta berrikuntza sozialeko logikan ari diren proiektu eramaileen/enpresarien laguntzeko beste modu batzuen probatzea: hots, gizartearen behar berriei (kontsumitzaileenak, enpresenak, baita elkargoenak ere) erantzun nahiz, ekintza publikoak eta merkatuak erantzun ezin dietelarik.

TXOSTEN hau eraikia da:

- 2018 eta 2021 artean egin animazio lanaren bilan oso batez, erran nahi baita:
 - o 18 hilabeteko zerrendatzearen lehen fasea (100 proiektu), balorizazioarena (kokalekua, ekitaldiak) eta proiektu eramaile horien beharren diagnostikoarena,
 - o 2 urteko bigarren fase bat, proiektu eramaileen laguntzeko aldi baterako dispositibo baten sortzearekin: **"Tranz'eKo"**, non laguntzaile/finantzatzaileak elkartu baitira;
- Beste norbaitek "Tranz'eko" dispositibo operatiboaz egin ebaluaketa batez;
- Garapen Kontseiluko kideekin egin azterketa batez, esperimentazio horren irakaspén guzien ateratzeko eta gomendioen formulatzeko, bereziki Akitania Berriko Ingurumen eta Energia Kontrolaren Agentziari eta Euskal Hiriguneari zuzendurik.

Garapen Kontseiluak Euskal Hirigune Elkargoari eskatzen dio trantsizioko ekonomia horren alde egin dezan, esperimentazio horretan oinarritu dadin lurralde- eta partaidetza-politikaren ontzeko, eta Euskal Herria trantsiziorako berrikuntza sozialeko lurralde bilakatzeko.

¹ *Hazkunde berderako energia positiboko lurraldea* izeneko programaren barne, Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluarekin batera sustaturik.

² 1. partean aurkeztu osagaiak



Zeintzuk dira irakaspen nagusiak³?

- Esperimentazioak baieztatu du Euskal Herriak **ekosistema aberatsa** duela: proiektu eramaile anitz, askotariko laguntza-egiturak eta jadanik dabiltzan edo garatu behar diren lankidetzak.
- Esperimentazioari esker, "**langile eta proiektu eramaileen**" **aberastasuna eta aniztasuna** neurtu ahal izan dira: aldi berean **enpresa mundukoak** eta **elkarte mundukoak, hiritarren artekoak**, bai proiektu materialetan (produktu berriak, ekaien berrerabilpena), bai zerbitzuetan ari direnak (sentsibilizazioa).
- **Ekonomikoki hibridoak diren proiektuak, interes orokorrari eragiten diotenak**, lurraldearen eta bere trantsizioaren beharrei erantzuten dietenak, eta aldi berean **egiazko ekonomian** errotuak direnak. Proiektu horiek **trantsizio ekologiko eta energetikoa** (lurraldearen eta biztanleen trantsizioan parte hartzea) dute **helburutzat eta baloretzat** eta ekonomiaren muinean daude, aktibitatea eta enpleguak sortuz. Baina **denbora gehiago behar dute** beren **bideragarritasunaren aurkitzeko**, haien **ereduek laguntza publiko bat behar dute** hastapenean edo garapenean fase garrantzitsuetan (finantza alorreko laguntza eta baita teknikoak ere, sareetan sartzea, partaidetzak...), zeren gizarte beharrei erantzuten baitiete, soilik merkatuzkoa ez den ekonomia bati, **jokabide aldaketei**; eta **politika publikoekiko osagarritasuna** ere aurkitu behar dute (adibidez, hondakinei buruz, berrerabilpenari buruz...). **Ekonomia Sozial eta Solidarioaren izpiritua** partekatzen dute egiteko moldean: kolektiboak sortu, elkarlana egin, eragile anitzeko gobernantzak sortu, borondatezko laguntzaileak/profesionalak, tarifa sozialak...
- **Enpresa mundutik datozen eragileek** (bereziki arduradunek eta ingeniariak) eraman ditzaketan proiektuak, beren negozioari **zentzua eman** eta **lurraldean finkatu nahi baitute**, lurraldearen beharrei erantzun, eta ez soilik "merkatu" bati. **Herritarrak inplikatu** nahi dituzten proiektuak, **erakundeekin hitz egin**, alternatiba/jarduera osagarriak proposatzeko... Baina non eramaileek **ez baitituzte** politika publikoak, ez eta kolektibitateen eta erakunde publikoen logika ulertzeko **gakoak**. Proiektu hibrido horiek Ekonomia Sozial eta Solidarioa, ekonomia klasikoa eta herritarren ekintza nahasten dituzte.
- **Tranz'eKo** dispositiboari esker, "**neurritza egin lana**" obratu ahal izan da proiektu eramaile horiekin, eta beste manera batez lagundu ahal izan zaie: haien **proiektu estrategikoan; lurraldean duten tokian eta posizionamenduan**; solaskide egokiekin **harremanetan jarritz** (eragile sozio-ekonomikoekin, elkargoekin) momentu egokian; "**berdinen arteko laguntza**" plantan ezarriz **alderdi teknikoari buruz** (aurrekontua, produktu- edo zerbitzu-eskaintza, antolaketa, barneko gobernantza, merkaturatzea).

³ Irakaspenak osoki ikus daitezke 37. orrialdean.



- Dispositiboari esker, gainera, proiektu eramaileei buruzko **misioak/eskumenak dituzten erakunde eta egiturak bildu** dira eta elkarrekin lanean ari izan. Hautapen batzorde eredu klasiko baten esperimenezkoaren ondotik, **Tranz'eKok** laguntza modu kolektiboago bat plantan ezarri du, "**ko-laguntzak**" entseatuz —partaide ekonomikoak ere parte harraraziz, egiazko "**laguntza-kate**" baten sortzeko— proiektuaren analisi kolektiboan oinarriturik (lagundu aitzineko eta ondoko analisia), bi etapa horietan egokiak diren egitura eta partaideekin eraikia.

Zer gomendio Euskal Herrian horrelako misioen garatzeko eta beste lurraldeetan ere sor daitezzen?

- **Etorkizuneko ekonomia da**, aktibitate berriak, enpleguak, berrikuntzak, jokamolde aldaketak ekarriko dituen, zeinen emaitzak bai ekonomikoak bai sozialak izanen baitira.
- Gaur egun oraino, **erakunde eta hautetsien laguntza eskasa du**, ekonomia alternatibo edo herritar bati lotua baita. Alta, biharko ekonomiaren eta **lurraldeen garapenerako** funtsezko adarra da.
- "**Lurralde politika**" bat behar du:
 - Ekonomia "klasikoa" eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa, ekonomia eta trantsizio ekologiko eta energetikoa **harremanetan jartzen** dituen.
 - Trantsizio ekologiko eta energetikoaren saileko enpresa berri horiei aukera ematen diena **usaian "klasikoak" deitzen diren enpresei zuzentzen zaizkien zerbitzu- eta laguntza-eskaintzak eskuratzeko**: lurrak, finantzaketak, sare-hurbilketa, horretan ari diren eragile/erakunde guzien arteko mutualizazioa, koordinazioa, etab.
 - "**Neurrira egin**" **laguntza moldeak** garatzen dituen, zeinek ekonomia horren baliabide eta behar bereziak kontuan hartzen baitituzte (interes orokorra, lurraldean txertatua izatea, publiko/pribatu osagarritasuna, lankidetzaren ereduak).
- Gisa berean, "**ibilbide pertsonalak**" lagundu nahi dira: ibilbide eta gaitasun oso aberatsak dituzten pertsonak, baina **profesionalki beste bide bat hartzen ari** direnak, beren negozioa trantsizio ekologiko eta energetikoaren beharrei erantzuteko bide gisa ikusten dituztenak, eta ez helburu gisa.
- Beraz, **proiektu eramaileen segurtasuna bermatzea** funtsezkoa da, haien eredu ekonomikoa usu haien baliabide propioetan oinarritzen baita (aurrezki pertsonala, langabezia-saria, familiaren laguntzak). **Bideragarritasun pertsonala** ere jokoan dago, eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa baino garrantzitsuagoa ere da.
- **Laguntza hori** beharrezkoa da agertze fasean, baina baita ere **proiektuaren heltze eta garapen osoan**, haien ereduak, oreka sotil horretan, hauskorra baita: indibiduala/kolektiboa, proiektua/lurraldea, lanaz aldatzea/ordainsaria, etab. Epe luze hori guti agertzen da, gaur egun, eskaintza publikoan.



- Elkarlaneko ekonomia horri egokitu **laguntzaren aldeko lurralde-gobernantza** batean oinarrituko litzateke: **lurralde animazio kolaboratiboa** berriz asmatzea (erakundeen artekoa, eragile ekonomikoen artekoa, inkubagailuak), proiektuen zerbitzuko eskumen kate bat, eta beraz, **elkarlaneko hitzarmen indartsua**.